

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2016ko URRIAREN 13an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2016ko urriaren 13an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


**ZINEGOTZIAK:** Gotzon Jauregi Sarasola  
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre  
Ander Leon Nanclares  
Angel Serrano Martinez  
Aritz Sarria Saraqueta  
Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2016ko abuztuaren 31an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 31 de agosto.**
  - **2016ko abuztuaren 31an egindako ez-ohiko bilkura./ Sesión extraordinaria de fecha 31 de agosto**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 1. Zenbakiko espedientearen onespena, hala bada/ Aprobación del expediente de modificación de créditos nº 1, modalidad de créditos adicionales.**
- 4. Larraulgo Murgilondo 15-B ko etxebizitzako tximinia eta fatxada konpontzeko obra baimena eskaera, A.R./ Solicitud de licencia de obras para arreglo de chimenea y fachadas de la vivienda Murgilondo 15-B de Larraul, A.R.**
- 5. Garai bateko Beobide-buru baserriari loturik zeuden terrenoetatik ateratako finka independentetik, Calvaiotako-arrubita saila banatzeko baimena eskaera, I.U./ Solicitud de licencia de segregación de la parcela Calvaiotako-arrubita de la finca constituida por parte de los antiguos pertenecidos de la Casería Beobide-buru, I.U.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

6. Asteasu –Larraul herri bidea konpontzeko lanen esleipena, hala bada/Adjudicación de las obras de arreglo del camino publico Asteasu-Larraul.
7. Larraulgo Frontoian hainbat konponketa lan egiteko lanen esleipena, hala bada/Adjudicación para la realización de varios arreglos en el fronton de Larraul.
8. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
9. Beste batzuk/Otros.
10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2016 urteko abuztuaren 31ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.
- ▣ 2016 urteko abuztuaren 31ko Udalbatzaren ez-ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

24/2016 Alkatetza Ebazpena, irailaren 2koa, 2016ko apirilaren 25eko 2016/08 Alkate Dekretua balio gabe uztea, ebazten duena.

25/2016 Alkatetza Ebazpena, urriaren 4koa, 2016/01 Kreditu aldaketari hasierako onespena ematea, ebazten duena.


Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 1. ZENBAKIKO ESPEDIENTEAREN ONESPENA, HALA BADA**

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espediente irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espediente aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundeen



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau


### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

### KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipaturako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.163.920.00.05 2016	UDAL LANGIL.BIZI ASEGU. FUNTZION.	280,00	68,16	348,16
1 0000.210.323.00.01 2016	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.ESKOLA	1.500,00	1.250,33	2.750,33
1 0000.210.419.00.02 2016	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.ERLE ASIARRA	100,00	528,36	628,36
1 0000.210.920.00.01 2016	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.UDALETXEA	1.800,00	298,25	2.098,25
1 0000.221.342.00.01 2016	ARGI HORNIDURA: PILOTALEKUA	700,00	124,14	824,14
1 0000.227.341.00.04 2016	KIROL GASTUAK	500,00	468,80	968,80



## LARRAULGO UDALA


(GIPUZKOA)

1 0000.480.335.00.01 2016	PARTIKUL.APORTAZIOAK. EUSKARAKO IKA.	700,00	117,00	817,00
1 0000.625.920.00.01 2016	ZERBITZ.FUNTZ.INBERTSI: ARBELA ETA BITRI	0,00	542,07	542,07
1 0000.685.933.00.01 2016	INBERTSIOAK: HERRI OSTATUKO MOBILIARIOA	0,00	495,04	495,04
1 0000.721.161.00.01 2016	UR KONTSORTZIOA	8.000,00	64,85	8.064,85
1 0000.227.333.00.01 2016	KANP. ENPRES.ZER: MUSEOAREN KUDEAKETA	0,00	18.000,00	18.000,00
1 0000.601.153.20.01 2016	AZPIEG.ETA URBANIZ.:ASTEASU-LARRAUL BID	0,00	51.790,66	51.790,66
1 0000.622.342.00.01 2016	ZERB.FUNTZ.INBERTSIOAK: PILOTALEKUA	0,00	13.329,97	13.329,97
<b>GUZTIRA</b>		<b>13.580,00</b>	<b>87.077,63</b>	<b>100.657,63</b>

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.720.000.00.04 2016	DIPUTAZIOA: ASTEASU- LARRAÑAGA BIDE KONPO	35.000,00
c	2 0000.720.000.00.05 2016	DIPUTAZIOA: PILOTALEKUA	6.665,00
c	2 0000.710.000.00.01 2016	EAE-KO KAPITAL TRANSFER: MUSEOKO DIRULAG	9.000,00
a	2 0000.870.000.00.01 2016	GERAKINAK	36.412,63
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>87.077,63</b>

### KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

**BIGARRENA:** Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

**HIRUGARRENA:** 2016ko urriaren 4an egindako Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

### KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA

Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, Udal honek ez du betetzen 2016erako aurrekontuen egonkortasuna eta gastu araua. Beraz, Udal hau behartuta legoke, beraz, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.


Hala ere, kontuan izanda 2016rako ezarritako zor helburua betetzen dela eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuaren Kontseiluaren Akordioa, 2014ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontuhartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta batzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Dena den, Kreditu Gehigarrien espedienteak honako finantziaketa du :

- Gastuak handitzea..... 87.077,63€
- Finantzaketa:

2 0000.720.000.00.04 2016	DIPUTAZIOA: ASTEASU-LARRAÑAGA BIDE KONPO	35.000,00
2 0000.720.000.00.05 2016	DIPUTAZIOA: PILOTALEKUA	6.665,00
2 0000.710.000.00.01 2016	EAE-KO KAPITAL TRANSFER: MUSEOKO DIRULAG	9.000,00
2 0000.870.000.00.01 2016	GERAKINAK	36.412,63

Eta argi eta garbi ikusten da kreditu espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### LAUGARREN PUNTUA

## **LARRAULGO MURGILONDO 15-B-ko ETXEBIZITZAKO TXIMINIA ETA FATXADA KONPONTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, A.R.**

Ikusirik A.R. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Murgilondo 15B etxe tximiniak konpontzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak, 2016ko urriaren 10ean eginiko txostenean dioena:

### **“LARRAULGO MURGILONDO 15B ETXEKO TXIMINIAK KONPONTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

A.R. jaunak, Murgilondo 15B etxe tximiniak konpontzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontu bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, eraikinean egin behar diren kanpo lanak gaur egun egoera txarrean aurkitzen diren 15B etxe bi tximiniak eraberritzeko dira, estaldura moduan txapel metalikoa jarriaz.

Lan hauek aprobetxatuaz, atzeko fatxadan zartatuak dauden paretak konpondu eta margotu nahi dira ere. Lan hauen aurrekontua 2.057,45€-koa da (BEZ-a gabe).

Fatxada margotzeko erabili behar duten kolorea gaur egungo kolorearen antzekoa da. Etxearen kanpo itxura, bolumena eta teilatuaren antolamendua ez da aldatzen.

Murgilondo etxea, Larraulgo hiri lurzoruan kokatua dago, A.I.U.1 eremuan hain zuzen. Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, eraikinen kanpo itxuraren aldaketek udal lizentzia behar dute. Eraikinen estetika eta itxura markatzen duen araudia, “B” dokumentuaren ordenantzetan azaltzen da, bereziki 3.2.4 puntuko 36º eta 37ª artikuluetan.


#### Artículo 36.- Fachadas.

*La composición de las fachadas de los nuevos edificios **será respetuosa con las de los edificios existentes en Larraul.***

*Podrá denegarse la licencia de edificación por motivos de orden estético cuando las fachadas resulten, de modo manifiesto, impropias del lugar de su emplazamiento.*

*En el caso de que existan tendedores en fachadas exteriores, estos se deberán cubrir con elementos que eviten la vista de la ropa tendida desde el exterior y cuyo diseño deberá integrarse en el conjunto de la fachada del edificio.*

*Los rótulos, anuncios luminosos o motivos ornamentales que se desarrollen sobre las fachadas tendrán un saliente máximo de 0,20 mts., y deberán estar situados a una altura mínima de 3 mts. Se colocarán en concordancia con la composición general de la fachada sin alterar ni deformar su configuración general. No podrán invadir los*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*elementos permanentes de la fachada en planta baja ni situarse perpendicularmente a ella.*

### Artículo 37.- Materiales a emplear en los edificios.

*Los materiales a emplear en las nuevas construcciones, o reforma de las edificaciones existentes serán los tradicionales en el municipio:*

*- Fachadas: Se utilizará la piedra o el cerramiento de ladrillo o bloque raseado exteriormente y pintado. No se admitirá el ladrillo cara-vista o chapeos con materiales cerámicos, vítreos o mármoles en una proporción superior al 30% de la superficie total de fachada. Se podrá utilizar en algunos elementos de fachada los bloques de hormigón de aspecto pétreo siempre que en la composición de la fachada se respete el aspecto tradicional del medio rural.*

*- Carpintería: La carpintería exterior será de madera natural o pintada en tonos oscuros preferentemente. Se admitirá la utilización de carpinterías de otros materiales (PVC, carpintería metálica) pintada o lacada en colores apropiados.*

*- Antepechos, barandillas: Serán siempre calados tanto de madera como metálicos, nunca de fábrica. Tampoco se utilizarán otros materiales como plásticos en paneles, vidrio, etc.*

Beraz, tximiniak eta fatxada eraberritzeko lanak aurreko artikuluetara egokitzen direnez, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

\*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean. "

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

### ERABAKITZEN DU:


LEHENA: A.R. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Murgilondo 15B etxeko tximiniak konpontzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### BOSTGARREN PUNTUA

**GARAI BATEKO BEOBIDE-BURU BASERRIARI LOTURIK ZEUDEN TERRENOETATIK ATERATAKO FINKA INDEPENDENTETIK, CALVAIOTAKO-ARRUBITA SAILA BANATZEKO BAIMENA ESKAERA, I.U.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


Ikusirik I.U. jaunak eginiko eskaera, non garai bateko Larraulgo Beobide-buru baserriari loturik zeuden terrenoetatik ateratako finka independentetik, Calvaiotako-Arrubita terrenoa banatzeko(segregatzeko) baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, garai bateko Beobide-buru baserriari loturik zeuden terrenoetatik ateratako finka independentearen deskribapena ondorengo dela:

*“Finca constituida por parte de los antiguos pertenecidos de la casería Beobide-Buru en el término municipal de **Larraul**, integrada por los siguientes:*

- a) El terreno conocido con los nombres de Lete-zabal, Sagastizarra y Putzu-aldea, que comprende quince mil veintinueve metros cuadrados (15.029m<sup>2</sup>), de las que mil cuatrocientos setenta y dos metros cuadrados (1.472m<sup>2</sup>) son de sembradio de Letezabal; treinta y cuatro áreas noventa y ocho centiáreas de herbales y peñascal; diez y siete áreas noventa centiáreas de sembradio de Sagastizarra; diez áreas noventa y siete centiáreas de ribazos; veinticinco áreas ochenta y tres centiáreas de manzanal; treinta y dos áreas veinticinco centiáreas de sembradio de Putzu-aldea; ocho áreas ochenta y ocho centiáreas de sembradio de Larraun-azpi, y cuatro áreas setenta y seis centiáreas de ribazo; confina por Oriente con pertenecidos de las casas de Beobide-azpikoa, Beobide-garaikoa y Elizalde, por Mediodía con camino carretil público, por Poniente con pertenecidos de la casa Iquilisagasti y por Norte con camino carretil público.
- b) El castañar llamado Azpiazu-aldea que mide veintidós áreas cincuenta y nueve centiáreas, confinante por Oriente con pertenecidos de la casa Beobide-garaikoa y por todos los demás lados con el de la casa Azpiazu.
- c) El terreno helechal y hayal del término de Murguil que comprende setenta y seis áreas y noventa y dos centiáreas de helechal y veintitrés áreas y nueve centiáreas de hayal, confinante por Oriente con pertenecidos de la casa Beobide-garaikoa, por Mediodía con el de la casa Arizabal, por Poniente con el de Goieneta-bitartea y por Norte con el de la casa Aguirrezavala y comino carretil.
- d) En el punto llamado Calvaiotako-arrubita un trozo de terreno hayal que con descuento de los caminos mide ciento sesenta y tres áreas y ochenta y siete centiáreas, confinante por Oriente con pertenecidos de las casa Concejil de Larraul y Zabaleta, por Mediodía con los de Iquilisagasti y Oñazabal, por Poniente con los de Iquilisagasti, Beobide-azpikoa y Eleizagui y por Norte, con los de las casas Churingadi y Posada de Larraul.
- e) Un trozo de terreno robledal llamado Cillegui que mide treinta y tres áreas y sesenta y un centiáreas, confinante por Oriente y Norte con pertenecidos de la casa Arezabal, por Mediodía con el de Larramendi y por Poniente con el de Elizalde.”





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.U. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo Beobide-buru baserriari loturik zeuden terrenoetatik ateratako finka independentetik, Calvaiotako-Arrubita terrenoa segregatzeko baimena baimena ematea.

BIGARRENA: Beobide-buru baserriari loturik zeuden terrenoetatik ateratako finka independentea, segregazioa egin ondoren, Lete-Zabal, Azpiazu-aldea, Murguil, eta Cillegui terrenoez osaturik geldituko da.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri I.U. jaunari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **ASTEASU-LARRAUL HERRI BIDEA KONPONTZEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik Asteasu-Larrañaga errege bidearen konponketa lanak egiteko asmoa duela Larraulgo Udalak.


Ikusirik Asteasu-Larrañaga errege bidea konpontzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, Landa inguruneko eta Lurralde Orekako departamentuak, 35.000 eurotako diru-laguntza esleitu diola Larraulgo Udalari.

Ikusirik, aipaturiko bidea konpontzeko lanak esleitzeko hiru aurrekontu eskatu direla, nahiz eta kontratu txiki bat izan. Eskatutako aurrekontuak, ondorengoak izanik: Bixente Otegi Lizaso, S.L., Excavaciones Oruezabal S.A. eta Ostarbi Eraikuntza eta zerbitzuak S.L.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den, Eba Erkizia arkitektoak, aurkezturiko hiru aurrekontuak aztertu eta ondoren egindako txostenean dioena, non Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzuak S.L. enpresak aurkeztzen dituela orokorrean prezio unitario merkeenak, ondorioz, bere esleipen proposamena Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzuak S.L. enpresaren alde izango da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Asteasu-Larrañaga errege bidearen konponketa lanak egiteko Eba Erkizia Brion prestaturiko proiektua onestea.

BIGARRENA: Asteasu-Larraul errege bidea konpontzeko lanak Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak S.L. enpresari esleitzea, 37.675,77 eurotako diru kopuruan. Lanak amaitzean metroen neurketa zehatza egingo delarik.

HIRUGARRENA: Gastua 2016 aurrekontuetako 1 0000.601.153.20.01 partidaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Bixente Otegi Lizaso, S.L., Excavaciones Oruezabal S.A. eta Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak S.L. enpresei ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **LARRAULGO FRONTOIAN HAINBAT KONPONKETA LAN EGITEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo pilotalekuan hainbat konponketa lan egiteko asmoa duela Larraulgo Udalak.

Ikusirik Larraulgo pilotalekuan hainbat konponketa lan egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol departamentuak, 6.665,00 eurotako diru-laguntza esleitu diola Larraulgo Udalari.

Ikusirik, aipaturiko lanak esleitzeko Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzuak S.L. –ri aurrekontua eskatu zaiola, kontratu txiki bat izanik. Bere zenbatekoa 11.016,50 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Pilotalekuan hainbat konponketa lan egiteko onespena ematea.

BIGARRENA: Larraulgo Pilotalekuan hainbat konpontzeko lanak Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak S.L. enpresari esleitzea, 11.016,50 eurotako diru kopuruan.

BIGARRENA: Gastua 2016 aurrekontuetako 1 0000.622.342.00.01 partidaren kargura egitea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak S.L. enpresari ematea.




## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **ZORTZIGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

ASTEASUKO UDALA	470,00
EINBER	476,76
IZENPE	472,65
ULAHI	363,00
SASMAK	58,08
FONGUI	106,33
FERRETERIA BARBE	68,63
PASKIN	465,85
BERRI LANTEGIA	107,56
KEY-LAN	6,72
EBA ERKIZIA	1.279,95
TOLOMENDI	152,50
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	945,71
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	967,77
KIROLZER	60,55
ZU ETA BOK	842,63
GIPUZKOAKO URAK	4.831,39
BULEGOAK	74,62
MAPFRE	1.844,49
SANIPLAST	16,46
FONGUI	5,78
IZENPE	87,01
IMAZ COLOR	65,26
OSTARBI	1.206,49
CORREOS	3,71
DIONISIO ORMAZABAL	6,43
EBA ERKIZIA	3.130,79
KIROLZER	54,10
FERRETERIA BARBE	55,06
IZFE	61,65
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	24,47
TOLOMENDI	152,50
REPSOL	8,35
REPSOL	37,51
IBERDROLA	198,22
IBERDROLA	64,95
IBERDROLA	111,16
IBERDROLA	176,41



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

IBERDROLA	30,03
IBERDROLA	191,41
IBERDROLA	176,50
IBERDROLA	28,77
IBERDROLA	159,55
IBERDROLA	74,71
MOVISTAR	48,41
MOVISTAR	18,15
MOVISTAR	17,98
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	49,70
MOVISTAR	18,15
MOVISTAR	48,40
MOVISTAR	18,19
MOVISTAR	133,05
MOVISTAR	49,98

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

### ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **20.256,21** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **9.1. I.Z.ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**


Ikusirik I.Z. andreak eginiko eskaera, non 2016/2017 ikasturtean, Ingeleseko ludotekarekin jarraitu nahi duela eta hau posible ahal izateko, Udal lokal baten eskaera egiten duen. Aurreko ikasturtean liburutegia erabili zuelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.Z. andreak eginiko eskaera onestea, hau da, udal liburutegia erabiltzeko baimena ematea, ingeleseko klaseak emateko. Ikasturtea amaitutakoan, utzitako giltzak, Udal bulegoan utzi beharko duelarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri I.Z. andreak ematea.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 9.2.A.M. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik A.M. andreak eginiko eskaera, non 2016/2017 ikasturtean, azken bi urtetan bezala CHI KUNG ikastaroa abian jartzeko asmotan eta hau posible ahal izateko, Kultur etxeko balioanitza gela erabiltzeko baimena eskaera egiten du. Astearte goizetan erabili nahi dutenez, Irakasle zuzendaritzari baimena eskatu ondoren hauen adostasuna dute. Eskaera honekin batera, Kultur etxera sartzeko giltza baten eskaera ere egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.M. andreak eginiko eskaera onestea, hau da, Kultur etxeko balioanitza gela erabiltzeko baimena ematea, CHI KUNG ikastaroa emateko. Ikasturtea amaitutakoan, utzitako giltzak, Udal bulegoan utzi beharko duelarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri A.M. andreak ematea.

### **HAMARGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.10 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA